

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Lemoa*

Aurkibidea

# Udalerrria: Lemoa

## Sarrera



Lemoa Bizkaiko erdigunean dagoen udalerrria da, Arratiako eskualdean Arratia eta Ibaizabal ibaien elkargunean. Udalerriko auzoak ondorengoak dira: Agarre, Arraibi, Arrantxe, Arraño, Azurreka, Bolunburu, Durandio, Elizondo, Elorriaga, Errekalde, Estaziñoa, Intzuntza, Iturritxe, Larrabeiti, Lemorieta, Mendietan, Pozueta, San Inazio, Tallerreta, Txiriboketa eta Zubieta. Mugakide iparraldean Bedia eta Zornotza ditu, hegoaldean Igorre eta Dima, ekialdean Zornotza eta mendebaldean berriz ere Bedia. Hizkerari begiratzen badiogu, mendebaldeko euskalkian kokatuko genuke Lemoakoen berbeta, Arratiako hizkeraren barruan hain zuzen ere.

- **Biztanleak:** 3.451
- **Euskaldunak:** %56,93

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **33**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **33**

## Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Lemoatx 1937
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

## Hizlariak

### **Pedro Amorrortu Etxabe (1923)**



Lemoan jaio zen eliz ondoko baserrian eta elkarrizketa garaian ere bertan bizi zen. Gurasoak Lemoakoak zituen. Bost neba-arrebatatik laugarrena da. Umetan, errepublikako eskolan ikasi zuen eta ezpata-dantzaria ere izan zen. Gerra garaian, Frantziara ihes egin behar izan zuen familiak eta bertan egon ziren hiru urtez. Ondoren, Lemoara itzuli eta enpresa administrari lana egiteko ikasketak egin zituen. Amaitu eta Eibarreko GAC enpresan hasi zen lanean, harik eta erretiratu zen arte. Lemoako kontuez hitz egin genuen berarekin egon ginenean, gerra aurreko giroaz eta eskolaz, besteak beste.

### **Juan Jose Arrese Bizkarra (1923-2016)**



Aita Otxandiokoa zuen eta ama, berriz, Izurtzakoa. Hamabi anai-arrebatatik zazpigarrena zen bera. Bost anai-arreba nagusienak Izurtzan jaio ziren, baina bera Lemoan jaio zen. Zortzi urte hasi zen eskolan, Udaletxeko eskoletan. 13 urte zituela eskola utzi behar izan zuen gerraren eraginez. Antzinako bizimoduaren iniguruko kontu interesgarriak kontatu zituen Lemoatx 1937 batzordekoek egindako elkarrizketan.

### **Satur Arrese Bizkarra**



Aita Otxandiokoa zuen eta ama, berriz, Izurtzakoa. Hamabi anai-arreba ziren; bost nagusienak Izurtzan jaio ziren, baina bera Lemoan jaio zen. Hamahiru urtera arte Urkiolan egon zen artzain, hango "fonda" bateko senar-emazteei laguntzen. Hamahiru urterekin Lemoara itzuli eta lanean hasi zen. Gerra garaiko kontu interesgarriak kontatu zituen Lemoatx 1937 batzordekoek egindako elkarrizketan.

### **Miren Artetxe Elexpe (1919-2015)**



Atutxen jaio zen. Hamalau neba-arrebatatik bosgarrena zen bera. Aita "tranbiarioa" ei zen, eta lehenengoetakoa, gainera, 1 zenbakia ei zeukan eta. Ama jostuna ei zen, baina hainbeste umerekin etxean izaten zuen nahikoa lan. Antzinako bizimoduaren inguruko kontu interesgarriak kontatu zituen Lemoatx 1937 batzordekoek egindako elkarrizketan.

### **Mertxe Iturrioz Etxebarria (1938)**



Elorreaga auzoko Txoane baserrian jaio zen eta zortzi neba-arrebatatik zazpigarrena izan zen. Aita Errekalde auzokoa izan zuen eta ama Elorreagako Laureta baserrikoa. Alabetatik gazteena izan zen eta etxeko beharrak egitea tokatu zitzaion, ahizpak neskame zeuden-eta. Askotan, neba zaharrenak pezeta bat ematen zion domeketako alkandora lisatzeagatik. Berandu joan zen eskolara, hamar urte zituela, eta urte bi baino ez zituen egin bertan. Auzoan zegoen giro onaz egin zigun berba berarekin egon ginenean, umetan egindako lanez eta baserri giroaz, besteak beste.



### **Mari Karmen Menika Basterretxea (1961)**

UEUko Idazkari Nagusia izan da 2000. urtera arte eta gaur egun Eibarko Ikastetxe Nagusiko arduraduna da.

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### **1. Baserria**

#### **1.1. Aitak feriatik ekarritako behiak eta idiak**

- **Hizlaria(k):** Iturrioz Etxebarria, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** LEM-001/002
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:04:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Aita zapaturu feriara joaten zen eta behi edo idi zaharren bat ekartzen zuen. Korta biak beteta izaten zituzten. Astoa eta sega hartuta ibiltzen zen beti. Aita feriara nora joaten zen kontatzen du. Belarra eta pentsua jaten zuten abereek. Idiei baba ematen zioten, basora eramaten zituztelako.

#### **Transkripzioa**

-Ta zelan izin zen zure umetako denporea baserrien?

-Bueno umetako denporea baserrien, ba, esango dotsut /esangotsut/.

-Behar asko, ez?

-Beharra, buf! Gure aite joaten zan feriera zapatu guztietan ta ekarten eben behi zahar bat edo idi zahar bat. Ta harek [imitauek] sikuek danak, hazur hutse. Ta gero aste guztien dale que te pego, dale que te pego. Ta ostera be joaten zan beste domekan han, ostera be beste bat. Ta harek korta biek -baserrie euki gendun biximodu bikoia ta errentadorea ya joanda eon zan ta-, harek korta biek ganaduz beterik. Ta astoa ta godañea nire biximodue haxe ixin da Elorrean, astoa ta kodañea lepoan. Oingo moduen

traktora euki baneben, bua, Elorrea guztieri bultea eingo neutsen, baia orduen astoa ta godañoa, ez zan egon besterik, ez zan egon besterik.

-Ta ferie non egoten zan ba?

-Ferie eoten zan e, ba zerean, joaten zan Torrelavegara ta zerean be bai, hor e...

-Mungian?

-Mungitik hortik, zeretik, be bai. Torrelavegara be joaten zan, hogeta... hamabostetik behin edo holan. Ta eoten zan zerean be bai, oin e ni ezin akordau.

-Zorrotzan edo Bilbon?

-Zorrotzan be bai eoten zan, segun batzutan eoten zan batan ta bestean bestean, baia beti joatean zan feria, beti.

-Ta ze iten euen gero berak hazi?

-Bai, klaro! Baserrire ekarten ebazan, ta han loditu ein behar, harek saltzeako gero, loditu. Bai.

-Baia ze izin zen? Tratantea, ala?

-Tratantea ez, gitanue. Tratantea ez zan izen, baie gitanue. Gustaten jakon harek ganadu merkeak han egoten zienak, azkenengo ordukoak, ekarri. Ta gero, alabea, alabak, horren ama kriada egoten zan, baia nire aiztea bekoa ta ni, zaharra ta gazteanak, han basarrien. Ta benga! Alzaten zan ohitik, kortara joaten zan, ta "Hemen ez dau jatekorik, hemen ez dau ezer, kortea hutsik dau". Klaro! Dana botaten otsien geubean, ta hurrungo goizerako bapez. Hartu kodañoa lepoan ta ala!

-Ta ze jaten eurien ba?

-Ba berdea ta sikue, baia berdea, bedarra.

-Pentsurik ez?

-Bai, pentsue be bai. Orduko denporan pentsue be bai, eoten zan. Babea ta. Horra sindikatue eoten zan hemen taillarretan, ta hara joaten zan babatan. Baia babea emoten otsien idieri, ze idiek joaten zien e, joaten zan e, ba, basoatara batzean apeak eta geuzek. Ba joaten zan.

-Orduen babea idieri?

-Babea idieri, baba nausi horrek, oi baba nausie esaten jakon, ta babea emoten otsien idieri.

-Inderra euki daien.

-Bai, inderra euki dien. Ta behieri ba urun apurtxu bet edo holan, zahie ta gauzek nahastute, bai.

## 2. Ohiturak eta bizimodua

### 2.1. Orduko andren arropak

- **Hizlaria(k):** Iturrioz Etxebarria, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** LEM-001/007
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:15:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Lehengo andreak beti amantala jantzita ibiltzen ziren, gona luzea eta jakearekin. Amama eta ahizpa zaharrak josten zituzten arropak. Amak zapia erabiltzen zuen buruan. Amama ez zuen koloretako arrokekin ezagutu, beti beltzez. Gizonak ez ziren osorik beltzez jantzen.

### Transkripzioa

-Ta lehengo andrak zelan jantziten ziren? Igual amantalagaz? -Bai, beti amantalagaz, nire ama beti ibiltzen zan amantalagaz. Horrek amantala politek ez dakizu zelango kuadradek. Nire amama be bai. Nik zenbet urtean euki dot amaman errekordua amantala gordeta, bai&ntilde;a gero eztakit ze pasau jatan. -A bai e? -Bai. -Ta gonak luzeak? -Gonak be luzeak bai, belaunetik berakoak e. Ta kuadradek ta holan, politek, ta holan beste motadunek eta holango gauzak. Ta gero jakea be bai, trajea izeten zan, gonea zer dune, tablak bai&ntilde;o ixurrezko...hamen garrien ta jakea egoten zan, igualak eruten euriezan. -Baie eurek einde ez? -Bai, nire aiztea zaharra joskilea ixen zan ta amama be bai, amamak be josten eiten eban. -Ta buruen? -Buruen mo&ntilde;oa, pa&ntilde;uele burukoa. Nire aman erretraturik hemen ez dekot. -Zuk be erabilten zendun? -Ez ez, nik ez ta nire aiztek bez, nire amatik ya zertu diez. -Ta baltza pa&ntilde;uelue? -Bai, pa&ntilde;uelo baltzak eroaten zirean, edo holan medio lututxu be bai, bai&ntilde;a beti kasi danak baltzak. -Baina lengo andrak-eta, jo, askotan egoten ziren lutoagaz ez? Beti baltzez! -Bai, dana lutue, gizona hil ezkerro edo batemat hil ezkerro baltzik, beti baltzik. Akordetan naz nire amamak egundo ez dot ikusi arropa kolorezko bategaz. I&ntilde;oz bez, ta larogeta hamar urtegaz hil zan ta amama, ta beti baltz-baltz-baltzik. -Osea, gizona hil eta hortik aurrera ia beti baltzez? -Beti baltzik, beti baltzik. -Eta gurasoak edo hiltzen zirenean? -Be bai, urte bi edo eroaten gendun, urte bi edo eroaten gendun lutue, eroaten zan orduko denporan. -Ta izekoa hil ezkerro eta holan be bai? -Izekoari gitxiau ia e, entierroa joaten gintzezen zoze medio luto edo holan, baina ostantzean ez e. -Osea etxeakoak? -Bai etxeakoak, aite edo ama edo nebarrebak edo aitite ta amama be errespetoa hareri be asko. Aitite ta amari be bai. -Eske nik dekot imajena beti andra nausiek eta lehen beti baltzez ezta? -Beti baltzez bai, gure ama beti baltzez ikusten gendun. -Gizonak eta diferente eroaten zeurien gabardinie ta holan. -Bai, bai -Holan erroparik ez aurien kanbiaten kolorerik ez? -Ez, ez dot pentsetan, gabardine laburrek eta bai. -A bai? Osorik ez baltzez? -Ez, gitxiau. Eroaten euriezan panazko jakeak, panazko jakeak asko. Panazkoa. -Baltzak? -Baltzak edo marroia. Marroia be bai asko.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Belarra erein, moztu eta gorde (LEM-001/003)

Esnea banatzen ibiltzen zen egunero. Astoarekin belarra ekartzen zuen abereentzat. Sekula belarra erein egiten zuten urtero, hazia gordeta. Segarekin moztzen zituen berak. Ama igitaiarekin mugak ebatzen ibiltzen zela dio. Belarra udan moztzen zen lehertzeko bazen. Metak osatzen zituzten. Zela egiten diren kontaktzen du.

## **2. Eskola sasoiko kontuak (LEM-001/004)**

Eskola hamaika urterekin hasi eta hamahirurekin utzi zuen. Ume asko zeuden orduan etxe bakoitzean eta eskolara denak batera joaten ziren. Neguan abarkekin eta udan abarketekin ibiltzen ziren. Perkalezko gona eta artilezko galtzerdiak erabiltzen zituzten. Ardien ilea erosi, harrotu eta amak goruetan egiten zuen.

## **3. Aitaren abarkak labanak (LEM-001/005)**

Abarkak dendan erosten zituzten. Aitak egiten zituen abarkak etxean baina labanak izaten ziren. Kordelak dendan erosten zituzten.

## **4. Korsea eta buruko zapia (LEM-001/008)**

Bularretakorik ez zuten erabiltzen lehen andreek, korsea baino. Haren gainetik kamiseta janzten zuten. Mertxek eta ahizpek bularretakoa eta justilloa erabiltzen zuten. Buruko zapia zela ipintzen zuten kontaktzen du.

## **5. Orduko gizonezkoan jantziak (LEM-001/009)**

Gizonek lehenago blusa erabiltzen zuten. Geroago, panazko arropak janzten zituzten. Aita beti gerriko beltzarekin ezagutu zuen. Abarkak eta galtzerdiak erabiltzen zituzten. Oihalen izenak eta ezaugarriak izendatzen ditu. Bere ahizpa joskilea zen eta oihalak non erosten zituen aipatzen du. Etxerik etxe ibiltzen ziren jostunak izaten ziren.

## **6. Umeen lanak etxean (LEM-001/011)**

Abereak zaintzea izaten zen umeen lana. Iturria etxe ondoan izan zuten eta handik ura ekartzen zuten. Argia beti ezagutu zuen etxean. Plantxa txingarrekin berotzen zuten. Anai zaharrenak pezeta bat ematen zion harizko frakak ondo plantxatuz gero.

## **7. Arropa garbiketa (LEM-001/012)**

Arropa eskuz garbitzen zuten. Iturria eta hiru putzu izaten zituzten. Ur epela eramaten zuten eta hango harrietan garbitzen zuten. Xaboiak txinboa eta lagartoa izaten ziren. Lixibia ere izaten zuten. Izarak eguzkitan zuritzen zituzten. Almidoia erabiltzen zuten.

## **8. Amaren kafea (LEM-001/013)**

Amak lan handia izaten zuen jatorduak prestatzen. Gauetan taloa edo morokila jaten zuten. Beheko sutan lapiko gorri bat izaten zuen amak kafearekin. Kafea zela egiten zuten kontaktzen du.

## **9. Errotariarekin zela moldatzen ziren (LEM-001/014)**

Lemoako errotara joaten ziren irina egitera. Errotariarekin izaten zituzten komeriak kontaktzen ditu. Irina eginda izaten zuen errotariak batzuetan eta hura ematen zien trukean. Norberarena ehoteko eskatzen zitzaion. Labeko sua egin eta artoa bertan xigortzen zuten batzuetan. Mertxeri ez zitzaion gustatzen.

## **10. Labeko sua nola eta zertarako (LEM-001/015)**

Labea nolakoa zen kontaktzen du. Pinua erabiltzen zuten sua pizteko, asko baitzegoen. Bizkarrean ekartzen zuten egurra basotik. Ogia zela erretzen

zuten kontaktzen du. Ogiak, artoa, sagarrak... erretzen zituzten. Larunbatetan egiten zuten gehienetan labeko sua. Ogi handiak egiten zituzten aste guztirako. Pamitxa zer zen kontaktzen du. Hazgarria okindegian erosten zuten.

### **11. Ardi eta behi gaztaiak (LEM-001/016)**

Gaztaia egiteko legarra. Ardien eta behien esnearekin egiten zituzten gaztaiak. Prozesua azaltzen du. Gatzura txerriei ematen zieten.

### **12. Galdutako gaztai eta esneak (LEM-001/017)**

Gaztaiak hilabete inguruz behintzat lagatzen zituzten lehortzen. Ez ziren asko galtzen, gatza izaten baitzuten. Udan freskotan eduki behar izaten zen esnea, ez galtzeko. Galdutako esnearekin gatzatua egiten zuten.

### **13. Asunbrea neurritzat (LEM-001/018)**

Esnea egunero saltzen zien Arresetarrei. Litroa erreal bi izaten ziren. Lehenago asunbrerdi, asunbrea eta asunbre t'erdi esaten zuten, litroa erabili beharrean. Anekdotak bat kontaktzen du.

### **14. Orduko neurri gehiago (LEM-001/019)**

Orduan beste neurri batzuk erabiltzen ziren: asunbrea, kantara-erdi (bost litro)... Kiloa eta libra erabiltzen zituzten. Abereentzat erraldea (4,8 kilo) eta artoa (12,5 kilo) erabiltzen zuten.

### **15. Gurdiak zelakoak eta zertarako (LEM-001/022)**

Gurdigileak egiten zituen gurdilak. Bi gurdi eta burtxea izaten zituzten. Zelakoak ziren eta zertarako erabiltzen ziren kontaktzen du.

### **16. Pinuak treneraino eramaten (LEM-001/023)**

Mertxeren aitak treneko etxeraino eramaten zituen pinuak eta lokatza handia egoten zen han. Etxeko pinuak eta besteenak ateratzen zituen aitak. Trontzarekin mozten zituzten.

### **17. Doña Rosario maistrarekin (LEM-001/024)**

Hamaika urterekin hasi zen eskolan. Doña Rosario zuten maistra eta bera bidaltzen zuen irinetara. Tranbian etortzen zen Bilbo ingurutik. Erdalduna zen. Goian neskak eta behean mutilak egoten ziren. Adin guztietakoak batera egoten ziren.

### **18. Gurasoek erdara gutxi, amamek bat ere ez (LEM-001/026)**

Gurasoek ez zekiten erdara askorik. Amamek ez zuten euskara besterik egiten.

### **19. Lo-kanta (LEM-001/028)**

Lo-kanta abesten du.

### **20. Txorro-morroka olgetan (LEM-001/030)**

Txorro-morroka ibiltzen ziren. Jolasa azaltzen du.

## **21. Beste jolas batzuk (LEM-001/032)**

Ezkutaketan jolasten zuten; "tres navíos" abesten zuten. Eskolan ikasten zituzten. Tiragomarekin eta goitibeherekin ere ibiltzen ziren.

## **22. Amandrea eta amama (LEM-001/033)**

Amandrea aitaren amari esaten zitzaion eta amama amaren amari. Aitite bie esaten zieten.

## **23. Anaia eta anajea (LEM-001/034)**

Anaia esaten zuten, Zeberion eta Galdakaon anajea.

## **24. Galdakaoko mutilekin dantzarik ez (LEM-001/035)**

Galdakaoko mutilak etortzen ziren bandarekin batera ia astero. Gorbatarekin etortzen zirenez, ez zuten haiekin dantzarik egiten neskek.

## **25. Hika eta berorika zeinekin (LEM-001/036)**

Hika berba egiten zuten adin berekoen artean. Orain ere hala egiten du. Neba-arrebekin ere beti egin izan du. Aitak mutilei egiten zien baina neskei ez. Berori amamari esaten zioten.

## **26. Arrosarioa afalurrean egunero (LEM-001/039)**

Dotrina eskolan eta apaizarekin ikasi zuen. Amak egunero errezatzen zuen arrosarioa afaldu orduko. Mahaia ere bedeinkatu egiten zuten jatorduen aurretik.

## **27. Gabonetako ogi koxkorra (LEM-001/040)**

Gabonetan ogi koxkorra gordetzen zuten. Aitak ogi koxkorra ebagi, muxu eman eta gorde egiten zuen urtebetez.

## **28. San Pedro jaiak (LEM-001/042)**

San Pedroko jaiak egiten ziren. Domeketan garai batean meza ematen zuten ermitan. Jaietan dantzan egiten zuten erromerian. Bertsolariak, dantzariak, herri-kirolak eta probalariak izaten ziren.

## **29. Auzoen arteko elkartasuna (LEM-001/044)**

Auzoen artean elkartasun handia egoten zen. Soroetako beharrak egiten ere laguntzen zuten elkar. Orain hori galdu egin dela dio. Koltxoiak elkarrekin egiten zituzten.

## **30. Karta-jokoan andra eta gizon (LEM-001/045)**

Andrak kartetan briskan aritzen ziren eta gizonak musean. Baserri banatan egoten ziren. Udan ermitan batzen ziren.

## **31. Zornotzara joaten zirenekoa (LEM-001/046)**

Zornotzara ardotara joaten ziren astoarekin. Plazara ere joaten ziren hara, gehienetan domeketan. Orduko Zornotza zelakoa zen kontaktzen du. Erromeriara ere joaten ziren.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com